

## **Familia zabalarekin dugun harremana hobetzeko argibideak**

Gaur egungo gizartean, familia zabalaren (ama, aita, koinatuak, amamak...) ingurutik kanpo bizitzea erabakitzen duten nukleo txikiak osatzen dira (seme-alabadun edo seme-alabarik gabeko bikoteak). Era berean, heziketa rol, rol sozial nahiz emozional eta abarretan desberdintasuna markatzen dute, euren bizikidetzeta etapa berriaren arabera. Familia zabal eta familia nuklearraren rolen arteko desberdintasun hau aberasgarria izan daiteke familia talde osoarentzat, ezartzen diren erlazio berrienganako jarrera errespetuan eta tolerantzian oinarritzen bada.

Zenbait momentutan, familia nuklearraren eta zabalaren artean eman daitezkeen gatazketan, esku-hartze desegokiak eman daitezke. Gatazka horien ondorioak, ondorengoak izan daitezke:

- Bikotearen ezintasuna bikote moduan eratzeko, hau da, jabetza autonomoa den unitate aske moduan.
- Egunero hartu beharreko erabakiak hartzeko zailtasunak, familia zabalarekiko mendekotasunak eraginda.
- Bikotekideen arteko gatazkek, intimitate eta askatasun faltagatik.
- Banaketa edo dibortzioa.

Familia zabaleko kideen arteko harremanen arrakastak, bere kide guztien arteko harreman afektiboen garapen positiboan dauka oinarria:

- Ez pentsatu familiako kideak guk nahi bezala egokituko direnik edota beraien portaera aldatuko dutenik.
- Gogaitu egiten gaituzten ezaugarri batzuk onartu, errealitatean, hain gogaikarriak ez direlako.
- Gauza onez gozatu eta intolerantzia maila jaisten saiatu.
- Haserrealdiak kontrolatu, norbaitekin desadostasunean egotea erraza delako. Aldiz, zaila izaten da haserrealdiaren arrazoiez eta egoeraren aurrean azaltzen dugun jarrerez hitz egitea.
- Gogoratu, familia deseroso edota aztoratuta azaltzen denean, haurrek berehala sumatzen dutela, haurrek tentsioa hautemateko erraztasuna baitute.
- Gogoan izan oso jende gutxik bete izan ohi duela, berez, aita, ama, amona, aitona, koinatu, eta abarrek izan beharuko luketen irudi ideal hori. Izateko modu eta estilo desberdin asko daude eta guztiak izan daitezke egokiak, bestearekiko errespetua zaintzen bada.

Aipatu beharra dago, erritual familiarak mantentzea garrantzitsua dela haurren garapen sozialerako eta emozionalerako; hala nola, urtebetetze egunak, urteurrenak... Egoera horietako bakoitza positiboa izango da, tolerantziaz burutzen bada eta egoera bakoitzak barnebiltzen duen aspektu positiboena eta onena ateratzen badugu.

## **LABURPENA**

Bukatzeko, gogoratu behar da haurarentzat, familia zabala, bere garapen psikologikoa era askotara indartuko duen baliabidea dela. Ikuspuntu afektibotik, imitatzeke eredu gehiago izango dute, jolaserako lagun gehiago aurkituko dituzte eta txikitatik ohitura eta izate modu desberdinetara ohitzen joango dira. Horrek guztiak haurrak lagunartean ondo moldatzea erraztuko du eta lankidetzeta bultzatuko du, betiere, familia ez bada, bai bikoteak bai seme-alabek parte hartzen duten sare sozial bakarra.

Ainhoa Manzano Fernández Doktorea  
Juan Luís Martín Ayala Doktorea  
ETXADI  
Familia-Psikologia Unibertsitate-Zentroa  
Centro Universitario de Psicología de la Familia